

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Tinta paltan, paltan tinta

AHUAKATEA, *Persea americana*, giblekoaz gaineko beste zenbait gaitz artatzeko ere egokia da. Ezagun ditugun fruitu guztien artean berezia da, ezerk baino gehiago du hauetatik: proteina, potasioa (bananak baino...), beta-karotenoa, magnesioa, tiamina, erriboflabina, niiazina, biotina, azido folikoa eta pantotenikoa eta E eta K bitaminak. Hori gutxi balitz, kolesterolaren aurkari beta-sitosteroletik eta gorputzaren moteltzeari, zahartzaroari, aurre egiten dion glutatona antioxidatzailetik badu.

Herdoiltze ezaz eta zahartzaroaz ezagutzen ditugun ahuakate zaharrenei galdetu behar. Edo, altzozan zituenari galdetu gero hobe: Perun, indusketa arkeologiko batzuetan duela 2.800 urteko momia bat topatua dute aldamenean ahuakate aleak dituela. Bizitzan bezala hil ondoren beharko zuen kema emango zioten fruitu haiek...

Amerikarrak dira bai ahuakateak. Hernan Cortes konkistatzaileak 1519an Mexiko zanutu zutenean, laguntzaile zeraman Fernando Oviedokoa historialariarena da bertan topatu zuten ahuakatearen deskribapena: zuritutako gaztainaren itxura duen hazia du erdian eta bueltan gurinaren antzeko ore ugari gozoa du. Berak udarearen antzera jaten omen zuen, otorduaren azken-buruko (portugesez *pereira abacate* deitzen dute). Beste batzuek gatzarekin edo azukrearekin... Mundu zabaleratua, makina bat eskutan atarramentu ederreko bilaka-



Ahuakatea (palta) da guakamole mexikar saltsaren oinarria.

tua da ahuakatea: Brasilen izozkitarako, Filipinetan eta Taiwanen azukrearekin esnetan gozoki, Jamaikan zopa hotzetan, Nigerian gaztaz beteta oretan bilduta laberako eta sabelerako, Korean kosmetiko-esnearekin nahasirik masailetarako lozio... Masailak gorritzeko, baita ere, haziaren etekin bakarra, likido esnetsu bat, erabiltzen da. Likido hori airearekin gorbeltzen da. Odol gorbeltza Ameriketako herrien suntsipenak idazteko erabili zuten. Tinta ona, inondik ere, beltzak ikusi behar izan zituen lur haren kronikak oraindik ederki irakurri baitaitezke dokumentu horietan. Erdialdeko Amerikan *ahuacatl* eta hegoaldeko Txile, Argentina, Ekuador eta Perun *palta* deitzen diote fruitu honi. Euskaraz ere noizbait izen hori erabili izan da; Lakoizketak 1888ko hiztegian, Aizkibel azkoitiarrarengandik hartu eta hala jaso zuen behinik behin. Larramendirenetik hartu ote zuen zakelak?



## Zuhaitzen kartzelak

Gure kaleen kalitatea doitze aldera espaloietan zuhaitzak jartzeko ohitura zaharra da. Zaharragoa da, berriz, zuhaitzok guk nahi dugun eran moldatu ditzakegunaren ustea. Urrutira gabe hor ditugu etengabeko torturara kondenatuak (mugarrotzeak, iltzeak, autoen muturrak...). Platano hau, *Platanus x hispanica*, Orion duen kartzelatik ihes egiteko saioan ari da.

“Sagarra ona izan liteke, deabruak emanik ere”

# 20.000

Nafarroako Gobernuak erlezainei banatzen dien dirulaguntza jasotzeko, berezko landaretza naturalez jantzitako 20.000 m<sup>2</sup>-ko saila behar du eskuera, gehiena jota 2,5 kilometrorra, erle eultze bakoitzak.